

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea 2026ko zenbait zerga erroldari

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko otsailaren 12ko bilkuran jarraian zerrendatzen diren 2026ko zerga errolden behin-behineko onespenerari buruz hartutako erabakien aurkako erreklamazioak aurkezteko epea igarota (erabaki horiek 2026ko otsailaren 25eko ALHAOn argitaratu ziren, 24. zenbakian), haien aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko jotzen dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluan xedatutako ondorioetarako.

- Onura publikoko mendietan larreak aprobetxatzearen 2026ko tasa (2026/416 espedientea).
- Ibilgailuak sartzearen eta aparkalekua gordetzearen aprobetxamendu bereziaren 2026ko tasa (2026/440 espedientea).
- Hilerria mantentzearen 2026ko tasa (2026/438 espedientea).
- Udal jabari publikoan jarritako mahaien eta aulkien (terrazak) erabilera pribatu eta aprobetxamendu bereziaren 2026ko tasa (2026/434 espedientea).
- San Antongo asteroko azokan saltokiak jartzearen, udalaren jabari publikoaren erabilera pribatuaren eta aprobetxamendu bereziaren 2026ko tasa (2026/455).
- Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboaren edo ustiaketa bereziaren (errotuluak) 2026ko tasa (2026/457).

2026ko apirilaren 9tik ekainaren 8ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, borondatezko epean kobratuko dira 2026ko udal jabari publikoan (terrazak) mahaiak eta aulkia jartzeagatiko erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasari dagozkion ordainagiriak.

2026ko uztailaren 1etik abenduaren 31ra (biak barne) arteko egun baliodunetan ordaindu ahal izango dira borondatezko epean, San Antongo asteroko azokan saltokiak jartzearen, udalaren jabari publikoaren erabilera pribatiboaren eta aprobetxamendu bereziaren 2026ko tasaren aurtengo ordainagiriak.

2026ko azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (biak barne) egun baliodunetan ordaindu ahal izango dira borondatezko epean 2026ko zerga errolda hauei dagozkien ordainagiriak: onura publikoko mendietan larreak aprobetxatzearen tasa, Ibilgailuak sartzearen eta aparkalekua gordetzearen aprobetxamendu bereziaren tasa (ibiak), hilerria mantentzearen tasa, udal jabari publikoaren erabilera pribatiboaren edo ustiaketa bereziaren (errotuluak) tasa.

Ordainagiriak helbideratuta ez dauzkaten zergadunek udaletxeko herritarren kutzazainean eta euskal administrazioaren ordainketa pasabidean ordaindu ahal izango dute zerga. Pasabide horretara udalaren web orriaren bidez sar daiteke (<https://udala.amurrio.eus/cas/servicios/hacienda-y-recaudacion/pasarela-de-pagos>), baita Eusko Jaurlaritzaren "Mipago Wallet" aplikazioaren bidez ere. Kobrantza aldia hasi baino hamabost egun lehenagora arte onartuko dira helbideratzeak.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Zergabilketarako Araudi Orokorrak. Errekargu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2026ko martxoaren 23a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA